

## LAN TALDEAREN BILERA

**DATA:** 2021-04-22

**BILERA ZENBAKIA:**45

**ORDUA ETA LEKUA:** 17:00etan Itsasondoko Udalean

**PARTEHARTZAILEAK:** 4 parte hartzaile | 3 emakumezko eta 1 gizonezkoa, (ez binarioa 0).

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

#### MURALAK:

Herriko gune ezberdinetan dauden muralak berritzea adostu da. Horretarako gai anitzak landuko ditugu; ekologia, parekidetasuna, errefuxiatuak, etab.

#### AUZOLANA:

Auzolan taldea berpiztu nahi da, herriko lorategi eta behar ezberdinak zaindu eta kolorez pizteko. Helburua, herritar sarea berriz ere martxan jartzea, honez gain, ingurumen eta herriaren zaintzarako beharrak asetzea. Amaitzeko, ideia hau ongizate batzordeak abian jarri duen arren, gure nahia, auzo lan taldea behin abian dagoenean haiek zereginarekin jarraitzea da.

Ekintzen proposamena: lorategiak, errekaen garbiketa eta muralak.


Zereginetako bat, egitasmo hau aurrera eramateko eskuragarri dauden aurrekontuen berri jakitea da.

#### ETXEBIZITZA:

Egungo testuinguruan etxebizitza izatearen oinarriko beharra asetzea ez dago herritar guztien gaitasun edo ahalmenara egokitua. Errealitate hau esku artean izanik, Ongizate batzordeak hilabeteak daramatza konponbide egoki baten bila. Egun jarduera hartan jarraitzen dugu. Hausnarketa honetan, "apaizaren etxea" delakoaren jabetzaren inguruko zalantza plazaratu da. Eraikin honen birgaitzea konponbide egokitzat hautematen baitugu.

#### MATADEROKO ERAIKINA:

Mataderoko eraikina birgaitzeko eredu edo proposamenak biltzen ari gara. Beñat arkitektoarekin harremanetan gaude. Hurrengo urratsa aurrekontuak eskatzea izango da.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	NORK?
Muralen materiala	Apirileko azken astea	Jabi
Muralen gaiak	Apirilaren azken astea	Lan taldea
Auzolan taldearekin harremanetan jarri	Maiatza	Maidar
Beñat arkitektoarekin harremanetan jarri	Maiatza	Aiora
Apaizaren etxearen jabegoa	Maiatza	Aiora
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<p><b>Hurrengo bilera, Maiatzaren 13an egingo dugu, osteguna arratsaldeko 17:00tan Udaletxean.</b></p> <p>Gai ordena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Muraletarako gaiak hautatu eta "eskulan" eguna zehaztu.</li> <li>- Mataderoko eraikinaren aurrekontuak.</li> <li>- Auzolan taldearen egoera.</li> <li>- Etxebizitzaren hausnarketa.</li> </ul>		